



AZTERKETA KUALITATIBOA

Euskadiko kontsumo jasangarriaren gakoak

LABURPEN EXEKUTIBOA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAILA

DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO



euskadiko merkataritzaren behatokia
observatorio del comercio de euskadi

| AURKIBIDEA

1. Helburuak eta metodologia

2. Begiratua testuinguari

3. Aurkikuntza nagusiak

4. Kontsumo jasangarria jarduera-arloen arabera

4.1 Kontsumoa elikaduran

4.2 Kontsumoa taberna eta jatetxeetan

4.3 Kontsumoa turismoan, kirolean, aisian eta kulturean

4.4 Beste produktu batzuen kontsumoa (jantziak kosmetikoak, altzariak)

5. Ekonomia zirkularra:

5.1 Objektuak konpontzea eta berregokituak erostea

5.2 Elkarlaneko kontsumoko plataformak

5.3 Birziklapena

6. Marka jasangarriak eta jasagarritasun-zigiluak

7. Bertako ekimenak

8. Garraioa

9. Etorkizun-sena eta oztopoak kontsumo jasangarriari

1 Planteamendu metodologikoa

1. Planteamendu metodologikoa

Helburuak


1. **Jasangarritasunak** erosteko irizpide gisa dituen **pertzepzioa eta garrantzia** ulertzea.
2. **Kontsumo jasangarriko ohiturak** hainbat sektoretan aztertzea.
3. **Elkarlaneko kontsumoko plataformen** erabilera eta konfiantza ebaluatzea.
4. Produktuak **konpondu eta berrerabiltzeko** jarrerak ikertzea.
5. **Marka jasangarrien** pertzepzioa eta horiek kontsumoko erabakietan duten eragina ezagutzea.
6. **Bertako ekimen jasangarriei** buruzko ezagutza- eta balorazio-maila ezagutzea.
7. Jasangarritasunari buruzko **geroko espektatibak** eta hobetzeko arloak aztertzea.

Metodologia



Online komunitatea

12 eguneko online komunitate bat burutu da. **7 jarduera** egin dira, 5 banaka eta 2 taldean; **Euskadin bizi diren 33 kontsumitzailek** parte hartu dute, produktu jasangarrien kontsumoarekiko sentsibiltate-maila ezberdinak dituztenek.



Focus Group

Ondoren, **3 foku-talde sortu dira, komunitateko 15 parte-hartzailerekin**. Horien banaketa bidezkoa izan da, produktu jasangarrien kontsumoarekiko duten sentsibiltate-mailaren arabera.

1. Planteamendu metodologikoa

Komunitateko parte-hartzaileen laginaren banaketa

19 eta 64 urte arteko 33 heldu

% 50 emakume / % 50 gizon

% 50 etxe, seme-alabarik gabe / % 50, seme-alabekin

% 50ek,, eko-sentsibiltate handia / % 50ek, txikia

Banaketa geografikoa:

- Bizkaia: % 45
- Gipuzkoa: % 33
- Araba: % 22

Banaketa belaunaldien arabera:

- *Baby Boom* belaunaldia (60-78 urte): % 24
- X belaunaldia (44-59 urte): % 30
- *Millennial* belaunaldia (28-43 urte): % 24
- Z belaunaldia (18-27 urte): % 21

Banaketa lanbidearen arabera:

- Hezkuntza eta Prestakuntza: % 10
- Osasuna: % 12
- Ingeniaritza eta Teknologia: % 15
- Ikerketa eta Zientzia: % 6
- Turismoa eta Zerbitzuak: % 15
- Enpresa eta Autonomoak: % 15
- Arteak, Kultura eta Sormena: % 9
- Etxeaz arduratzea: % 12
- Erretirodunak: % 6

Foku-taldearen banaketa

1. taldea - Gipuzkoa

- Gipuzkoan bizi diren 4 parte-hartzaile
- 2 emakume / 2 gizon
- *Millennial* belaunaldia: 2 / Z belaunaldia: 1 / X belau.: 1
- 3, eko-sentsibiltate handiarekin / 1, txikiarekin

2. taldea - Bizkaia

- Bizkaian bizi diren 6 parte-hartzaile
- 4 emakume / 2 gizon
- *Baby Boom* belaunaldia: 3 / X belaunaldia: 2 / Z belau.: 1
- 2, eko-sentsibiltate handiarekin / 4, txikiarekin

3. taldea - Araba

- Araban bizi diren 5 parte-hartzaile
- 3 emakume / 2 gizon
- X belaunaldia: 2 / *Millennial* belaunaldia 2 / Z belau.: 1
- 3, eko-sentsibiltate handiarekin / 2, txikiarekin



2

Begiratu bat testuinguruari

2024ko abenduan egin zen azterketa

2. Begiratu bat testuinguruari

Euskadiko herritarren begiradak **ikuspegi zabalagoa** du, beren mugak gainditzen baititu. **Aurrezte ekonomikoak** kontsumo-ohitura jasagarrien eragile nagusia izaten jarraitzen du, baina **klima-aldaketak** ezinbesteko lekua hartu du **kontzientzia kolektiboan** azkenaldian.



Ikuspegi zabalagoa

Alde batetik, kontsumitzaileek **arreta jartzen dute utzitako aztarnan**, eta beren eskura dituzten ekintzak ebaluatzen dituzte. Hala, **“zer egin dezaket?”**, **“nola murriz dezaket nire eragina?”** aztertze elkarriketa dute beren buruengan.

Bestetik, begirada bat dago **EAEko eremuari, “guri”, elkarrekin lotutako gizarte gisa. Elkarriketa kolektibo baten bidez**, zeinean klima-aldaketari buruzko erantzukizun partekatua sortzen den, batzuetan, erru-kutsuarekin: **“berandu gabiltza”, “asko dago egiteko oraindik”, “zer mundu utziko diegu gure ondorengoei”**.

Begirada kolektiboak beste eskualde batzuetara hedatzen du arreta, hala nola **Valentziako Erkidegora**, oraintsu tanta hotzak eragindako hondamendiagatik, eta kontzientzia-geruza osagarria suspertu du, azterketan nabaria dena:

“Ikusten dugunez, klima-aldaketa ez da bakarrik munduko beste leku batzuetan euria barra-barra aritzea, baizik eta gure ondoan gertatzen ari baita, eta guztioi eragiten digu. Atzo Valentzian gertatu zen, baina gehiagora joango da”

“Erantzukizun kolektiboa” kontzeptua inoiz baino presenteago dago talde-elkarriketan, eta, nolabait, kontsumo-erabakietan ere sartzen da, oraindik ohitura sendoetan gauzatu ez bada ere.

3 Aurkikuntza nagusiak

3. Aurkikuntza nagusiak



ELIKADURA JASANGARRIA: XAHUTZEA ETA PLASIKOAK MURRIZTEA

1.

Prezio altuak oztopoa izaten jarraitzen badu ere, pertsonak erosketak optimizatzen eta elikagaien zaborrak murrizten dituzte; era berean, supermerkatuetan plastikozko ontziak gutxitzeko nahia gora doa.

ZAHARBERRITZEA ETA JASANGARRITASUNA: AURRERAPEN MOTELAK, BAINA BALORATUAK

2.

Jasangarritasuna ez da erabakigarria jatetxeak aukeratzekoan, baina egiaztatu da ur iragazia kontsumitzen dela, bertako produktuak erabiltzen direla eta hainbat plataforma, hala nola Too Good To Go, erabiltzen direla xahutzea ekiditeko.

JASANGARRITASUNA AISIAN ETA KULTURAN: ERAGINA ETA JABETZEA

3.

Herritarrek jakin badakite turismoak eta ekitaldi jendetsuek eragin handia dakartela, baina norbanakoak jarduteko gaitasun txikia duela hautematen dute; antolaketa-neurriek jardunbide jasangarriagoak izateko optimismoa sortzen dute.

EKONOMIA ZIRKULARRA: AUKERAK ETA OZTOPOAK, KONPONDU ETA BERRERABILTZEKO

4.

Aurrezte ekonomikoak gauzak konpontzera bultzatzen du, batez ere, gazteen artean, baina kostuak, bermeak eta teknikaririk ezak zaildu egiten dute. Etxeko zerbitzuei buruzko App-ak gero eta ezagunagoak dira.

ELKARLANEKO PLATAFORMAK: HEDATZEN ARI DIREN JARDUNBIDEAK

5.

Wallapop eta Vinted dira elkarlaneko kontsumoko liderrak jantzietan, altzarietan eta teknologian. Hainbat ekimenek, esaterako Koopera-k eta GKE-k, esaterako Emaús-ek, jasangarritasuna eta gizarteratzea sustatzen dituzte.

GARRAIO JASANGARRIA: TIRABIRAK ETA MOLDAKETAK

6.

Autoaren erabilera murrizteko joan-etorriak optimizatzen badira ere, Emisio Gutxiko Eremuek zalantzak sortzen dituzte, eta garraio publikoko sistema hobetu beharra nabarmendu da.

OZTOPO KULTURAL ETA SOZIALEK JASANGARRITASUNA GELDIARAZTEN DUTE

7.

Administrazioek eta enpresek erantzukizun indibidualaren gainkarga eta eredugarritasun-eskakizuna sumatzen dute iraunkortasunaren esparruan, eta horrek zaildu egiten du ohiturak sakonki aldatzea.

4

Kontsumo jasangarria

4.1 Elikadura

4.2 Tabernak eta jatetxeak

4.3 Turismoa, Kirola, Aisia eta Kultura

**4.4 Beste produktu batzuk
(jantziak, kosmetikoak, altzariak)**

4. KONTSUMO JASANGARRIA

4.1 Elikadura

Aurrezteak eta aprobetxatzeak markatzen dute kontsumo jasangarria izateko bidea; horrek, prezio altuak direla kausa, erresistentziak aurkitzen ditu, baina baita elikagaiak optimizatzeko eta xahutzea murrizteko motibazioa ere.



Prezioa erabakigarria da, baina bertako produktuen onurak ezagunak dira

Kontsumiltzaileek elikagaien kalitatearen eta prezioaren nondik norakoak aztertzean, prezioa kontuan hartu ohi dute kontsumoaz erabakitzean. Hala ere, nabarmendu behar da kontsumitzaile gehienek badakitela bertako produktuen kalitatea eta eragina hobeak direla.

Kontsumo-ohiturak dituzte —esaterako, produktu freskoen jatorria egiaztatzea—; hots, jarrera irekia eta proaktiboa dute bertako produktuak kontsumitzearen alde, erosahalmenaren arabera.

Eusko Label eta 0 Km-ko produktuak: prezio altuegia

0 Km-ko produktuak eta Eusko Label etiketadunak beren kalitateagatik eta bertako ekonomiari egiten dioten ekarpenagatik aintzat hartzen dira. Hala ere, prezioa altua dela uste da.

Ortu propioak eta partekatutako autokontsumorako

Batzuetan, erabiltzaile batzuek badute beren ortua, eta barazkiak eta ortuariak landatzen dituzte autokontsumorako. Erabiltzaile horiek gehiago dakite urte-sasoiko produktuez.

“

“Eusko Label etiketadun produktuen prezioa gainerako bikoitza edo hirukoitza ohi da. Orduan, azkenean, zaila da askotan erostea. Hobeak dira, baina kalitateak ez du prezioaren gehikuntza bidezkoak.”

“0 Km-ko produktuak kontsumitzen saiatzen gara, eta bertako baserritarrei laguntzea, baina hurbileko produktuak garestiagoak dira beti.”

“Denbora ematen dut herri batean, eta baditut nire ortuak Tomate sasoia ez bada, ulergaitz samarra iruditzen zait tomateak erostea, edo Hego Amerikako frutak erostea.”

”

4.1 Elikadura

Prezioa palanka bihurtu da elikagaiei **probetxu gehiago ateratzeko**, eta erosketa optimizatzeraz eta xahutzea minimizatzeraz bideratuta dago, probetxua ateratzeko sukaldaritza baten bidez.



Alderantzizko erosketa-zerrenda: erosketa optimizatuagoa eta hobeto antolatuagoa.

Erabiltzaileetako batek adierazi du "alderantzizko erosketa-zerrenda" egiten duela; hots, etxean dituen produktu guztiak zerrenda batean idazten ditu eta, ondoren, izakinen arabera eta badituen produktuen osagarrien arabera erosketa egiten du, produkturik bikoiztu gabe.

Bestetik, egiaztatu da arreta gehiago jartzen zaiela iraungitze-data gertu egoteagatik supermerkatuetan merkatuta dauden produktuei, eta horrela, xahutzea ekiditen da.

Kozinatzeko modu eraginkorragoa, ezer alferrik ez galtzeko

Jakien hondarrak berrerabiltzen dituzten errezeten bidez edo hobeto planifikatuta dagoen asteko menu baten bidez.

Egiaztatu da, halaber, izozkailu horizontalak erabiltzen direla, eta badagoela produktu freskoak izozteko ohitura, ondoren eskatu ahala kontsumitzeko eta alferrik ez galtzeko.

“

“Alaba ikastetxean utzi ondoren, supermerkatuara joaten naiz, haragiak eta arrainak % 50ean daudelako, iraungitze-data hurbil dagoelako.

Ondoren, izoztu egiten ditut eta egokitzen denean kontsumitzen ditugu.

Dirutza aurrezten dut, eta produktuak ondo daude, ez dira bota behar”

“Etxean saiatzen gara hondakin organiko bakarra fruten eta barazkien azalak eta arrautza-oskolak izaten. Dena aprobetxatzen dugu.”

”

4.1 Elikadura

Onartzen da oraindik **asko dagoela egiteko** elikagaien kontsumo jasangarriagoa lortzeko, eta arreta jartzen da **supermerkatuetako** plastikozko **ontzien murrizketan**.



Plastikozko poltsak berrerabiltzea edo plastikozko, kartoizko eta beirazko ontziak birziklatzea ohitura sendotua da.

Konsumitzaileek biribiltasunez adierazi dute ohiturak aldatu egin dituztela elikagaien erosketak eramateko moduari dagokionez, plastikoa murrizteko asmoz.

Era berean, gehienek adierazi dute etxean ontziak birziklatzearekin oso kontzientziatuta daudela.



Supermerkatuan plastikozko ontzi gehiegi dagoela uste da.

Euskadiko herritarrek erreparatu diote elikagaien erosketan sortzen den plastiko gehiegikeriari. Alabaina, oraindik ez dute konponbiderik aurkitu arazo horri.

Nabarmen hobetu da oihalezko poltsen erabileran edo plastikozko poltsen berrerabileran, eta ontzien kasuan proposatu da eredu tradizionalera bueltatzea; hots, konsumitzaileek berriz betetzeko ontziak eramatea.



Ekoizleek, banatzaileek eta Administrazioek ekintza gehiago egitea erreklamatzeko da.

Azkenik, konsumitzaileek gogorarazi dute elikagaien kontsumoaren jasangarritasun gaitan erantzukizunik handiena ekoizleei, fabrikatzaileek, markei eta Administrazioei dagokiela, eta horien eskuetan dagoela ingurumena gehien errespetatzen duten produktuak herritarren poltsikoen eskueran jartzea.

“

“Hau, azken finean, lehen egiten zenera itzultzea da: harategira tuperrak eramatea, betetzera, edo botilak superrera, amak egiten zuen moduan esnea eroatera joaten zenean. Egia esateko, etxean plastikozko poltsa bat betetzen dugu erosketan bat egiten dugunean.”

“Beti birziklatzen ditugu era askotako materialak (papera, kartoia, plastikoa, beira,...). Gainera, asteko erosketan egiten dugunean, geure poltsak eramaten ditugu eta hondakin gutxien (kartoia eta plastikoa, batez ere) dituzten produktuak hautatzen saiatzen gara.”

”

4. KONTSUMO JASANGARRIA

4.2 Tabernak eta jatetxeak

4.2 Tabernak eta jatetxeak

Kalitatea, prezioa eta arreta ona dira faktore erabakigarriak taberna edo jatetxe bat aukeratzen denean. **Jasangarritasuna ez da erabakigarria** erabakian, baina positiboki baloratzen da.



Bertako produktuak dituen eskaintza gastronomikoa erakargarria da.

Erabakia hartzean prezioa hobesten bada ere, positiboki baloratzen dituzte bertako produktuak eta urte-sasoikoak dituzten jatetxeak. Nahiago dituzte 0 Km-ko produktuak, urte-sasoikoak edo elikagai freskoak erabiltzen dituzten jatetxeak.

Langileen lan-baldintza egokiak exijitzen dira

Jasangarritasunak badu harreman eta giza alderdi bat ere, eta horrek aintzat hartzen du langileen ongizatea.

Hori dela eta, pertsonak ez dira joaten jatetxe batera badakite langileek ez dituztela lan-baldintza egokiak edo tratu ona.



Janari lasterreko jatetxeetan kontsumitzea saihesten da

Saihesten dute janari lasterreko jatetxeetan kontsumitzea, hondakin asko sortzen dutelako eta ingurumen-inpaktu handia eragiten dutelako.

“

“Antzeko prezioa duten jatetxe biren artean aukeratu behar badut, nahiago dut menuan urte-sasoiko eta bertako produktuak dituen.”

“Ez gara inoiz joaten janari lasterreko jatetxeetara, hondakin asko sortzen dute.”

“Negozio batean langileak ondo tratatzen ez direla badakigu, ez gara berriro joaten.”

”

4.2 Tabernak eta jatetxeak

Kontsumitzaileek adierazi dute konturatu direla taberna eta jatetxeetako kontsumo jasangarrian eragin ona duten **bi neurri berri** hartu direla: **ur iragaziaren** kontsumoa **eta hondarrak etxera eramateko aukera**.



“Jarri eramateko, mesedez”

Positiboki baloratzen dute jakiak alferrik galtzea saihesteko aukera, kontsumitu ez dena eramateko ontzi batean jar dezatela eskatzea, alegia.

Guztiak egiten ez badute ere, gehienek onartu dute baliagarria dela, eta noizean behin egin dutela.

Nahiago al duzu gure ur iragazia ala botilakoa?

Iturriko ur iragazia marka komertzialen botilen ordezkaintzea, bigarrenak plastikoa edo beira sortzea baitakarte edo isuriak, garraiatzean eta fabrikatzean.

“

“Zerbitzariari esan nion: begira, oso ona dago, baina bapo nago. Eta etxera eramatea eskaini zidan. Bikain iruditu zitzaidan”

“Orain ur iragazia jartzen dizute, tabernakoa, haiek betetzen dituzten kristalezko botiletan. Eta botilako ura eskatzen baduzu, eduki badute, baina ondo deritzot iragaziari. Bertako iturriko ura oso ona da, ez dugu zertan ordaindu beste bat edateko”

”

4.2 Tabernak eta jatetxeak

Positiboki baloratzen da sukaldaritzan bertako eta urte-sasoiko produktuen eskaintza gehiago egotea, baina **zalantzan jartzen dute zenbateraino** den salmenta-estrategia bat edo **benetako eragina duen.**



Proposatu da jasangarritasun-zigilu edo bereizgarri bat sortzea taberna eta jatetxeetarako

Maiz komentatzen da ezin dela bereizi jasangarritasunaren arrazoibidea aprobetxatzen duten marketin-ekintzen eta benetan eragin ona sortzen duten ekintzen artean.

Proposamen hori sortu da taberna eta jatetxeetan zein neurri hartzen den, horien benetako eragina zein den edo zerk edo nork ziurtatzen duen ikusteko eta horretaz ziur egoteko beharretik.

“

“Hemen ere badago marketin pixka bat, 120 euroko menua jartzen duten jatetxeak ezagutzen ditut, eta zer jango duzun ez dakizu. Sukaldaria egun horretan azokara doa eta han aurkitzen duenarekin egiten du menua. Ondo jaten da, bertako produktuak, urte-sasoikoak, baina 120 euroren truke...”

“Ondo legoke kalitate-zigiluren bat egotea, bereizteko zein toki den jasangarriago, eta zigilua lokaleko atean ikusgai jartzea.”

”

4.2 Tabernak eta jatetxeak

Tabernek eta jatetxeek **Too Good To Go** erabiltzen dute, elkarlaneko kontsumoko plataforma ezaguna, **elikagaiak alferrik galtzea saihesten duena**, diru-sarrerak optimizatzen dituena eta bezeroei **dirua aurrezteko** aukera ematen diena.



App hori sukaldaritzan erabiltzen da, baina elikaduran ere.

Kontsumitzaileek bertako dendetan (frutategiak, harategiak, arrandegiak, okindegiak...) egunean salduko ez diren produktu freskoak erosteko erabiltzen dute App hori, baita taberna eta jatetxeetakoak ere.

Agertoki horretan guztiek irabazten dute, baita Lurrak ere.

Dendek galera-kopurua eta xahutzea murrizten dituzte eta bezeroek produktu onak merke erosteko aukera dute.

“

“Noizean behin, pintxo gozo-gozoak dituen taberna batetik igarotzen naiz, eta ematen didatenarekin badaukat egun horretako afaria...”

“Frutategian fruta eta barazki helduak ematen dizkizute, biharamunean salduko ez dituztenak. Ez da fruta politena, baina zaporetxua da.”

“Okindegian erabili dut, eguna amaitzean sobera geratu zaien gauzekin sorta egiten dizute”

”

4. KONTSUMO JASANGARRIA

4.3 Turismoa, Kirola, Aisia eta Kultura

4.3 Turismoa, Kirola, Aisia eta Kultura

Norberaren esperientziaren arabera, Euskadiko herritarrek adierazi dute oso kontzientziazatuta daudela **aisiak** eta **turismoak** ingurunean duten eraginarekin. Eta hori egiten diren hainbat jardunbidetan ikusten da.

1.

Hobe trenez abioiez baino

Nahiago dute trenez bidaiatzea abioiez baino, posible bada. Era berean, joan-etorriak autoz egiten dituzte gehienetan, eta hirietan, oinez.

2.

Helmuga ez masifikatuak

Turismo-helmuga ez masifikatuak aukeratzen dituzte, eta ez dira gehiegi ustiatuta dauden tokietara joaten. Landa-ostatuak edo ingurunearekin arduratsuak direnak hobesten dituzte.

3.

Jasangarritasuna hoteletan

Hotelek jardunbide egokiak betetzen dituzte, hala nola ura edo toallak gehiegikeriaz ez erabiltzea edo buffetetik kontsumituko ez diren produktuak ez hartzea.

4.

2. eskuko ekipamendua

Zenbaitetan, bigarren eskuko hornidura erosten dute, bidaia baterako berariazko jantziak edo osagaiak behar dituztenean.

5.

Natura zaintzea

Naturarekin harreman estuagoa ikusten da helmugak eta planak hobestean, esaterako mendi-ibiliak, argazkilaritza edo aire zabaleko kirolak. Gainera, ingurunean eraginik ez izateko neurriak hartzen dituzte, hala nola hondakinak biltzea.

“

“Nahiago dut trenez bidaiatzea, merkeagoa eta lasaiagoa da, eta gutxiago kutsatzen du”

“Elurretara goazenean, auto-kopuru txikienean taldekatzen gara”

“Helmuga ez masifikatuak bilatzen ditugu, esaterako landetxeak, etxeko osagaiekin egindako gosari gozo-gozoak eskaintzen dizkizutenak, eta ez buffet-dun resort masifikatuak”

“Azken urteotan, kontzientziazio handiagoa ikusi dut, toalla gutxiago erabiltzen dira, ez da ura alferrik galtzen eta buffetik ez dira jango ez diren elikagaiak hartzen”

“Bigarren eskuko kirol-materiala erosten dugu; azken aldian, eskiatzeko jantziak. Ia berri zeuden”

Txakurrekin aire zabaleko jarduerak egiten ditugu. Oso gogoko dugu bidezidorrak aurkitzea eta paseatzea. Batzuetan, landetxeak alokatzen ditugu tokiaz eta bertoko janariaz gozatzeko.

”

4.3 Turismoa, Kirola, Aisia eta Kultura

Futbol-partidak eta kontzertuak ingurumenean eraginik handiena duten ekitalditzat hartzen dira. Hala ere, Euskadiko herritarrek uste dute horien gainean banaka jarduteko gaitasun txikia dutela.

Horien eragina: garraioa, hondakinak sortzea eta energia-kontsumoa

1. Garraioa


Adierazi dute jendetza bertaratzen dela eta eragin handiak dituztela garraioan: garraio publikoko linea masifikatuak, ibilgailu gehiegi eta aparkaleku gutxi, eta horri lotutako isuriak.

2. Hondakinak sortzea

Jakin badakite ekitaldi horietan edariak eta jakiak kontsumitzeak hondakin ugari sortzen duela.

3. Energia-kontsumoa

Adierazi dute ekitaldi horiek, gainera, energia-ekarpen handia behar izaten dutela.



“

"Zapatila batzuk zola konpontzera eraman ditut, eta 17 € kobratu didate. Zapatilek 90 € kostatzen dute."

"Beti saiatzen naiz tresnak konpontzen, horiek botatzeak eta berriak erosteak kontsumismo neurrigabea baitakarte."

"Robot xurgagailua konpondu dut, oso ona delako, eta horren bizitza baliagarria luzatu nahi izan dut."

"Eramangarriaren memoria handitu nuen, egunero erabiltzen jarraitzeko."

”

4.3 Turismoa, Kirola, Aisia eta Kultura

Horrelako ekitaldietara bertaratzen direnak ohartu dira antolatzaileek etorkizun jasangarriago batekiko **optimismoa sortzen** duten **hainbat neurri** hartzen dituztela.



Bizikleta-aparkalekua **Mendizorrotza inguruetan**

Estadio horretara bertaratzen direnek adierazi dute duela gutxi horren inguruetan bizikleta-aparkaleku bat jarri dela, ibilgailu partikular gutxiago erabil daitezen eta garraio publikoa bete ez dadin.

Pipita-azalen konposta **Anoeta estadioan**

Aipatu da ekitaldi horiek erabiltzen direla ontziak birziklatzeko eta hondakin organikoak berrerabiltzeko neurri berriak probatzeko eremu gisa.

Hain zuzen ere, Real Sociedad Fundazioaren eta Kutxa Ekogunearen ekimen bat aipatu da, Anoeta estadioan bildutako pipiten azalak ongarri bilakatzen duen proiektu baten eskutik.

Eguzki-panelen instalazioa **San Mames estadioan**

Adierazi da estadioan eguzki-panelak jarri direla, harekin loturko energia-komunitate bat hornitzeko.

Nabarmendu da San Mames estadioa jasangarritasun-neurriak instalatu izanaren eredu. Kasu horretan, gainera, energia-komunitate bat sortu da, inguruko bizilagunekin osatua, eta hori hornitzen du.

“

“Anoeta estadioan, duela gutxi, konpost ekimen bat sortu zuten pipiten azalekin, eta interesgarria iruditzen zait.

Azkenean, ekitaldi horiek parada egokia dira probatu eta esperimentatzeko, eta egiaztatzeko ekimenek maila handi batean funtzionatzen duten”

“Beste leku batzuetan egiten dutena egin beharko lukete, hots, fidantza bat ordaindu behar izatea edalontziengatik, eta gero, itzultzea. Horrela ez zen edalontzirik botako, seguru asko.”

”

Kultura ukiezintzat hartzen dute, horien ustez, ez dago beti jasangarritasunarekin lotuta; hortaz, ez dute **inpaktu handirik hautematen** arlo horretan, eta ez dute ekintza handirik egiten jasangarritasunaren alde.



Ekintza jasangarri nabarmenak Aisian eta Kulturean

Liburu eta txartelak, formatu elektronikoan
Nahiago dituzte liburu elektronikoak eta
sarrera-txartel digitalak kultur ekitaldietan.

Liburuak trukatu eta berrerabiltzea eta bigarren eskukoak erostea

Nahiago dituzte bigarren eskuko liburuak, edo elkarlaneko kontsumoko plataformetan liburuak trukatzeko dituzte (esaterko, Wallapop).

Garraio publikoaren erabilera

Aukera nagusia da zinema-areto eta antzokietara joateko edo hiriguneetan maiz dauden bestelako aisia-planetarako.

"Alabak liburuak irentsi egiten ditu, eta Wallapop erabiliko ez banu, porrot egingo nuke. Eta bi norabideetan egiten dut: alde batetik, erosi egiten ditut, baina alabak irakurri ostean, saldu egiten ditut."

*"Bilboko erdigunean aparkatzea
amets txarra da, eta, gainera,
orain, ezin da Emisio Gutxiko
Eremuetan sartu. Garraio
publikoan joaten saiatzen naiz
beti"*

4. KONTSUMO JASANGARRIA

4.4 Beste produktu batzuk (jantziak, kosmetikoak, altzariak, teknologia)

4.4 Beste produktu batzuk: jantziak

Prezioa hobestu egiten da, eta *fast fashion* erosten jarraitzen da. Baina, aldi berean, kalitate hobeko edota bigarren eskuko jantziak hobesten ari dira.



Joera gorakorra 2. eskuko jantzien erosketan

Kontsumitzaileen artean zabaldu egin da bigarren eskuko jantziak erabiltzea, elkarlaneko kontsumoko plataformei esker (esaterako, Vinted).

Vinted plataformak aukera ematen du erraz aurkitzen ez diren produktuak (igarotako denboraldiko izakinak) merkeago erosteko.

Era berean, bigarren eskuko denda fisikoak eta ekintza solidarioak (Koopera edo Emaús) aipatzen dituzte. Horietan, jantziak eta osagarriak erosi eta eman egiten dira.

Ekimen jasangarriak eta *fast fashion* aldi berean daude, deigarria da.

Eigarren eskuko jantziak erosteko irizpide nagusia ekonomikoa da: produktu onak merkeago erosteko aukera.

Bigarren eskuko jantziak ez dira beti merkeenak edo ez dituzte behar guztiak betetzen; hortaz, ekoizpen masiboa eta ez jasangarria edukitzeagatik ezagunak diren Shein edo Primark dendetan erosten jarraitzen da. Halere, kontsumitzaileen iritziz, banatzaile nagusiek (Inditex, esaterako) ekintza jasangarriagoa dute, ingurumen-inpaktu gutxiagoko material birziklatuen jantzi-sortak dituztelako.

“

“la jantzi guztiak Vinted bidez erosten ditut, dendetan ikusten ez ditudan arropak aurkitzen ditudalako; eta noizean behin, Primark-en eta Shein-en”

“Duela gutxi dendaz denda ibili nintzen bikotekidearekin eta bigarren eskuko denda batera joan ginen, ez dut izena gogoratzen, eta arropak begiratzen egon ginen”

“Emaús-en erosi dut askotan, eta solidarioa da, gainera, eta batzuetan, arropa eramán diet”

“Jantziak biltzen ditut Latinoamerikara eramateko. Noizean behin bidaltzen dut”

”

4.4 Beste produktu batzuk: kosmetika eta altzariak

Kosmetikan, osagaien zerrendari jartzen diote arreta kontsumitzaileek, eta altzariak berrerabili eta zaharberritzea ohikoago eta errazago bilakatu da, neurri batean, Wallapop-i esker.



Osagai naturalak dituzten kosmetikoen kontsumoa

Kosmetikan ere hauteman dira jasangarritasun-balioak, hala nola gai kimikorik gabeko osagai naturalak hobestea.

Era berean, produktuak animaliekin testatu ez izatea eskatzen da.



Bigarren eskuko altzariak erosi eta berrerabiltzea

Altzari zaharrak zaharberritu, pintatu edo aldatzea, horien bizitza baliagarria luzatzeko, oso hedatuta dago, eta, hein batean, hainbat plataforma erabiltzeari esker (Wallapop, kasu) lortzen da.

“

“Kosmetikoetan garrantzitsua da osagaiei erreparatzea.”

“Kosmetiko naturalak, beti. Aurpegia garbitzeko gelak, xaboiak, dutxa-gelak... Batzuk nik egiten ditut, eta beste batzuk, erosi egiten ditut produktu naturalen dendetan.”

“Etxeko altzariak beti dute “bigarren bizitza bat” ; pintatzen ditugu, apaintzen ditugu, eta baliagarri bilakatzen ditugu, berriak erosi beharrean.”

“Gero eta altzari gehiago berregokitzen ditugu. Alaben logelak altzari berberak erabiliz egokitu ditugu.”

”

4.4 Beste produktu batzuk: teknologia

Etxetresna elektrikoak erostean, hauteman da berregokituen eskaintza gora egiten ari dela, telefono, tableta eta eramangarriekin gertatzen ari den bezala.



1. Gailuen bizitza baliagarria luzatzea

Teknologiaren erabiltzaileak gailuak eguneratzen edo berritzen saiatzen dira, haien bizitza baliagarria luzatzeko. Esaterako, ordenagailu baten osagai batzuk ordeztzen dituzte memoria handitzeko, edo moteldu egiten denean, formateatu edo doitzen dute. Sektoreko espezialistek egin ohi dituzte lan horiek



2. Energia-kalifikazio oneko gailuak erostea

Etxetresna elektriko berri bat erostean, hauteman da hobesten direla energia-kontsumoan efizienteagoak direnak.



3. Produktu berregokituak erostea

Merkeagoak direla da arrazoi nagusia, baina hauteman da kontsumiltzaileak gogaituta daudela gailuen berritze-zikloak gero eta laburragoak direlako eta ez dutelako balio erantsi gehigarririk ematen.

Backmarket online denda oso ezaguna da tableta, telefono eta eramangarri berregokituak erosteko.

Zailtasunak daude gailu batzuk konpontzeko.

Adierazten dute ez dela beti bideragarria etxetresna elektriko batzuk konpontzea. Batez ere, telebistak, garestia goa baita konpontzea berria erostea baino.

Zaila da ordezeko piezak aurkitzea, ez dago eskulan aditurik edo prezioak ez dira lehiakorak, horiek dira zailtasunen arrazoiak. Batzuetan lortu egiten da, esaterako, konponketa-zerbitzuen App-en erabilerari esker (hala nola "Óscar" eta "Webel").

“

“Orain, denda askos etxetresna elektriko berregokituak saltzen dituzte, merkeago”

“Etxetresna elektriko berri bat erosten badut, nahiago dut ahalik eta gutxien kontsumitzea”

“Memoria handitu diot eramangarriari, pixka bat gehiago iraun dezan”

Konponketa arrakastatsua

“Lehenengo egunean, ontzi-garbigailuaren pieza bat apurtu zen, eta Óscar izeneko zerbitzu-app bat erabili nuen.

Mutiko bat etorri zitzaidan etxera, argazki bat egin zion piezari, Ali Express-en aurkitu zuen eta arazoa konpondu zidan, 30 euroren truke.

Zerbitzu tekniko ofizialera deitu banio, hirukoitza ordainduko nukeen.””

5 Ekonomia zirkularra

5.1 Objektuak konpontzea eta berregokituak erostea

5.2 Elkarlaneko kontsumoko plataformak

5.3 Birziklapena

5. EKONOMIA ZIRKULARRA

5.1

Objektuak konpontzea eta berregokituak erostea

5.1 Objektuak konpontzea eta berregokituak erostea

Gazteek konpontzeko joera gorakorra antzeman dute, dirua aurrezteko, eta bigarrennez, jasangarriagoa delako. Baina erabiltzaile batzuek adierazi dute 2008ko krisialdian baino gutxiago konpontzen dela.

Konpontzeko joeraren bilakaera ezberdina, produktuen arabera.

Produktu batzuen (**jantziak, oinetakoak eta altzariak**) konponketan susperraldia gertatu da, jasangarritasunak eta ekonomia zirkularrak bultzatuta.

Halere, konpontzen diren produktuek balio ekonomikoa, materiala edo emozionala dute kontsumitzaileentzat beti.

Produktu elektronikoak eta etxetresna elektriko txikiak gutxiago konpotzen dira,

ez baitu merezi, produktu berria erostearekin alderatuta.

Zaharkitze programatua eta konpontzeko espezialistarik eza dira kontsumitzaileei konpontzeko asmoa kentzen dieten oztipoetako batzuk.



Hainbat ekimen, hala nola “Bizkaia repara”, ezagunak dira herritarren artean

Erabiltzaileek ekimen batzuen komunikazioa gogoratzen dute, esaterako, “Bizkaia Repara” izenekoarena. Horrek tokiko denda espezializatueta hainbat objektu konpontzea sustatzen du.

Ez da Euskadiko beste hiri batzuetako antzeko ekimenik gogoratzen.



Produktu berregokituak: Backmarket, sektoreko buru.

Egiaztatu da zabaldu egin dela produktu berregokituak erosteko joera, hala nola ordenagailu eramangarriak, tabletak eta mugikorrak, banatzaile espezializatuen bidez (esaterako, Backmarket).

Arrazoi nagusia da merkeagoak direla, baina lehen esan bezala, kontsumitzaileak gogaituta daude, ohartu direlako gailuen berritze-zikloak gero eta laburragoak direla, eta ez dakartela balio gehigarri nabarmenik.

“

“Uste dut oraindik badagoela jantziak, oinetakoak eta altzariak konpontzeko kontzientzia, eta joera hori gorantz joango dela.”


“Irratian entzun nuen Eusko Jaurlaritzak kanpaina bat martxan jarri duela bertako dendetan produktuak konpontzea diruz laguntzeko. Esaterako, objektu bat konpontzeak 20 € kostatzen badu, Jaurlaritzak 10 € itzuliko ditu”

“Erosi nuen azken telefonoa Backmarket-en erosi nuen, berregokitua; telefono onak saltzen dituzte, hala nola, iPhone, modelo berriak eta ondo dabilzatenak, askoz merkeago”

”

5.1 Objektuak konpontzea eta produktu berregokituak erostea

Konponketaren kostua, bermea eta teknikari espezializatuak aurkitzeko erraztasuna faktore erabakigarriak dira produktu edo objektu bat konpontzeko erabakian.



Jantziak eta osagarriak konpontzea

Jantziak dira gehien konpontzen diren produktuak: prakak, jakak, zorroak eta modako bestelakoak.

Faktore hauek hartzen dira kontuan:

- **Aurrezte**a, batez ere, jantzi garestietan: amerikanak, trajeak, zorroak edo jantziak.
- **Atxikimendu emozionala**, edo jantzi batzuk oso gogoko izatea.
- **Jasangarritasuna**, behar ez direnak ez erostea eta produktuen bizitza baliagarria luzatzea.



Oinetakoak konpontzea

Oinetakoak eta zapatilak konpontzea, batez ere, zolak aldatzea.

Konsumitzaileek nabarmendu dute oinetakoen gainerako materialen iraunkortasuna, zolak higatuta badaude ere; hortaz, merezi du zolak aldatzea edo konpontzea, oinetako berriak erostea baino merkeagoa baita.



Elektronika

Oraindik ondo dabilten gailuen bizitza baliagarria luzatu nahi da. Hauek konpontzen dira: mugikorrak, eramangarriak, etxetresna elektrikoak eta robot xurgagailuak.

Kategoriia horretan "kontsumismo neurrigabea" geldiarazteko kontzientzia eta asmoa egiaztatu da. Eta gailu elektronikoek beste produktu batzuek baino eragin handiagoa sortzen dutela ingurumenean.

“

"Zapatila batzuk zola konpontzera eramán ditut. 17 € kostatu dit konponketak, eta zapatilek 90 € inguru balio dute."

"Gailuak konpontzen saiatzen naiz beti, botatzeak eta berriak erostea kontsumismo neurrigabea dakartelako."

"Robot xurgagailua konpondu dut, oso ona delako eta horren bizitza baliagarria luzatu nahi izan dudalako."

"Ordenagailu eramangarriaren memoria handitu nuen, egunero erabiltzen jarraitzeko."

”

5.1 Objektuak konpontzea eta berregokituak erostea

App batzuk, hala nola “*Webel*” edo “*Oscar*” iritsi dira Euskadira, eta etxeko mantentze- eta konponketa-zerbitzuak eta “mainatsuak” eskuratzeko aukera zabaldu dute.



Óscar eta Webel, zerbitzuen plataformak, horien artean, konponketa.

25 eta 35 urte artekoek erabili dituzte jada zerbitzu-aplikazio horiek, eta konponbide merkeak eta oso gogobetegarriak lortu.

Adierazi dute horiek eskaintzen duten zerbitzu-aukera ugaria dela, eta teknikariak eraginkorrak eta erabakitzaileak direla.



Etxeko altzariak eta objektuak konpontzea

Aulkiak eta mahaia konpontzen dituzte, tapizeriak eta gainazalak zaharbertitzen. Motibazio nagusiak ekonomikoak eta sentimentalak dira, baita material batzuen (zur trinkoa) kalitate bikaina ere.

Erabiltzaile batzuek altzari zaharrak erosten dituzte Wallapop bidez, edo kalean hartu eta zaharbertitzen. Zeregin horiek norberak egiten du, nolabait.



Hauteman da etxetresna elektriko txikiak konpontzeko zailtasuna

Egiaztatu da etxetresna elektriko txikiak edo telebistak berriak erostea baino garestiagoa dela.

Hauteman dute pertsona gutxiago dagoela konpontzeko prest, eta enpresa handiek ez dutela ordezeko piezak eskuragai izatea errazten.

Bestetik, gauza jakina da produktu asko denbora espezifiko batean huts egiteko diseinatu direla, berritzera behartzeko.

“

“Lehengo egunean, ontzi-garbigailuaren pieza bat apurtu zen, eta Óscar izeneko zerbitzu-app bat erabili nuen. Mutiko bat etorri zitzaidan etxera, piezari argazki bat atera zion, Ali Express-en aurkitu zuen eta arazoa konpondu zidan, 30 euroren truke. Zerbitzu tekniko ofizialera deitu banio, hirukoitza ordainduko nukeen.”

“Egongelako aulkien zura ona da, eta merezi du bigarren aukera bat ematea. Tapiztegi batean oihal bat erosi nuen, eta grapagailu bat, eta neuk konpondu nituen aulkiak.”

”

5.1 Objektuak konpontzea eta berregokituak erostea

Objektu konponduei ematen diegin balio emozionalak, berrien segurtasun eta bermearekin alderatuta, zeregin garrantzitsua du konpontzeko ala berria erosteko erabakian.



Objektuak konpontzearekin ala erostearekin loturiko emozioak

Produktu konponduak emozio hauekin lotzen dira: gogobetetze etikoa, nostalgia eta estimua. Baina, aldi berean, ziurtasunik eza sortzen dute funtzionaltasun eta iraunkortasunari dagokienez.

Konpontzea ingurumenari ekarpen ona egitea bezala sentitzen da, ekintza jasangarritzat hartzen da. Halaber, balio sentimentala duten objektuak kontserbatzeko aukera ematen du.

Kezkak sortzendira konpondu den produktuaren funtzionaltasun eta iraunkortasunaren gainean, baina, aldi berean, produktu berria erosteak dakarren gastua saihesten du eta berrerabilera sustatzen du, eta hortaz, lasaitasun ekonomikoa sortzen du.

Objektu berriak erostearekin loturiko emozioak

Kontsumitzaileek produktu berriak emozio positiboekin lotzen dituzte: ilusioa, konfiantza eta segurtasuna. Baina, aldi berean, kontsumismoarekin loturiko errudun-ustea aipatzen dute.

Gauza berri bat erosteak produktu egin berri batez gozatzegatik alaitasuna eta gogobetetzea dakartza. Produktu berriak fidagarriagotzat hartzen dira, gehiago iraungo dutela eta akats gutxiago izango dutela uste da.

Produktu berri bat erostea sari moduko batekin ere lotzen da, lorpen pertsonal batekin.

“

Produktu konponduak

"Konpontzeak sentsazio hobeak dakarkit, badakidalako niretzat balioa zuen zerbait galtzen ez dudala."

"Produktu konpondu batek oroitzapenak ez galtzeagatik nostalgia eta alaitasuna dakartza."

Produktu berriak

"Produktu berri bat erosteak ilusioa egiten du: irekitzea, erabiltzen hastea, berri-berria dela ikustea."

"Konfiantza gehiago ematen dit berriak, ez delako higitu eta berme handiagoa duelako."

”

5. EKONOMIA ZIRKULARRA

5.2 Elkarlaneko kontsumoko plataformak

5.2 Elkarlaneko kontsumoko plataformak

Adin guztietako pertsonak erabili ohi dituzte. Ezagunena Wallapop da, askotariko produktuak dituelako eta erabilerraza delako. Bigarrenez, Vinted, ezaguna dena jantzi eta osagarriei dagokienez, arrazoizko prezioak dituelako.



Wallapop, ezagunena

Gehien erabiltzen den plataforma, bigarren eskuko produktuak (jantziak, altzariak, teknologia, liburuak, eta zerbitzuak ere) salerosteko.

Erabiltzen dutenek adierazi dute erabilerraza dela, jende ugari erabiltzen duela eta produktu bereziak aurkitzeko aukera ematen duela.

Negoiazteko eta zuzenean elkartzeko aukera ematen duela, produktuak lekuan bertan ikusteko, baina erosketa-esperientzia saltzaile eta eroslearen arteko elkarrekintzaren araberakoa dela.



Vinted, jantzi eta osagarrietarako

Jantziak, oinetakoak eta osagarriak salerosteko erabili ohi da gehienbat. Erabiltzaileek prezio merkeak baloratzen dituzte, batez ere, gama altuko markeena.

Plataformak produktuak igotzeko eta salmentak egiteko prozesua errazten du, baina erabiltzaile batzuek esan dute plataforma ez dela hain adiskidetsua, eta saltzaile batzuek markako produktuen bila ari direla ondoren garestia birsaltzeko.



Ebay eta Milanuncios, ez dira hainbeste erabiltzen

Ebay gutxiago erabiltzen da: batez ere, gai espezifikokoak edo aurkitzeko zailak diren produktuak erosteko. Pixka bat zaharkituta geratu dela esan dute.

Milanuncios plataforma ez dela oso segurua adierazi dute, ez duela ikuskapenik, eta maiz iruzurrezko salerosketak eta iruzurrak barne hartzen dituela.

“

Wallapop

"Wallapop bidez hainbat altzari erosi ditut akurako etxerako. Zuzenean elkar zaitezke saltzailearekin eta erosgaia ikusi eta ukitu dezakezu."

Vinted

"Vinted oso gogoko dut, prezioengatik; markako jantziak arrazoizko prezioen truke izateko modua da."

Ebay

Partikularren arteko lehenengo salmenta-plataformetako bat izan zen, baina pixka bat zaharkituta dago"

Milanuncios

"Ikusi nuen haztegi bateko txakurkumeak saltzen zituztela lizentziarik gabe, eta ez zuten iragarkia kendu."

”

5.2 Elkarlaneko kontsumoko plataformak

Elkarlaneko kontsumoko App-en eremuan eragile eta ekimen berriak agertu dira. Too Good To Go, elikagairik ez xahutzeko; Óscar eta Webel, besteak beste, konponketa-zerbitzuak eskaintzeko.



Too Good To Go, elikagairik ez xahutzeko

Taberna eta jatetxeen kontsumo jasagarriaren atalean lehenago aipatu bada ere, adierazi beharra dago pertsonen App hori erabiltzen dutela bertoko dendetako (frutategiak, harategiak, arrandegiak, okindegiak...) produktu freskoak erosteko, baita taberna eta jatetxeetakoak ere, egunean saldu ez direnak, alegia.

Erabilera-agertoki horretan parte hartzen duten guztiek irabazi egiten dute, Lurra ahaztu gabe. Dendek galerak eta alferrik galtzen diren produktuen kopurua murrizten dute, eta bezeroek produktu onak merke kontsumitzeko aukera dute.

Webel eta Óscar, etxean zer bait konpondu edo instalatzeko

Objektu eta produktuak konpontzeko atalean lehenago aipatu badira ere, 25 eta 35 urte arteko gazteek erabili dituzte jada zerbitzu-aplikazio horiek, eta konponbide merkeak eta oso gogobetegarriak lortu.

Adierazi dute zerbitzu-aukera ugaria dela, eta teknikariak eraginkorrak eta erabakitzaileak direla; zerbitzu tekniko ofiziala saihesten dute eta dirutza aurrezten dute.

Aplikazio horiek berriak dira; izan ere, bi urte besterik ez daramate Euskadin zerbitzuak ematen.

“

Too Good To Go

“Frutategian fruta eta barazki helduak ematen dizkizute, biharamunean salduko ez dituztenak. Beharbada ez da fruta politena, baina zaporetsua da.”

“Okindegi batean erabili dut: egunaren amaieran, sorta bat egiten dute sobera geratu zaienekin.”

Óscar eta Webel

“Lehengi batean, ontzi-garbigailuaren pieza bat apurtu zen, eta Óscar izeneko zerbitzu-App bat erabili nuen. Mutiko bat etorri zitzaidan etxera eta arazoa 30 euroren truke konpondu zuen.”

”

5. EKONOMIA ZIRKULARRA

5.3 Birziklapena

5.3 Birziklapena

Birziklatzea da kontsumo jasangarriaren euskarrietako bat eta herritarrek gehien egiten dutena; landa-guneetan hondakinak banatzeko jarraibide argiagoak eta azpiegitura hobeak behar ditu.



Oztopoak birziklapenari: konplexutasuna eta ezjakintasuna

Birziklatzeko sistemei buruzko informaziorik ezak eta haien konplexutasunak zaildu egiten dute hondakinak egoki sailkatzea, eta horrek gogoa kentzen die erabiltzaile askori. Erronka nagusia da birziklapenari buruzko arautegiak sinplifikatzea eta herritarrak behar bezala ezartzeari buruz heztea. Aldaketa onak ikusi dira, esaterako, birziklapen-gune espezializatuak ugaritu izana, hala nola jantziak eta etxetresna elektrikoak biltzekoak.



Birziklapen-azpiegitura eta zerbitzu hobeak behar dira landa-eremuetan

Sistema antolatuak, esaterako, "atez ate" aintzat hartzen dira, baina adierazi da azpiegiturak hobetuegin behar direla birziklatzeko jarduera errazteko.

Birziklapen-guneak ugaritu egin behar dira, zerbitzua landa-eremuetan eskuragarriagoa izan dadin.



Ahalegin kolektiboa eskatzen da, ez herritarrena bakarrik.

Nabarmendu dute birziklatzea ez dela norbanakoaren erantzukizuna bakarrik, guztion ahalegina baizik, gobenuena, enpresena eta herritarrena, alegia.

Iradoki dute pizgarri ekonomiko eta sozial hobeak sortzea, herritarrek eta erakundeek bat egin dezaten birziklapenarekin.

“

Konplexutasuna eta ezjakintasuna

"Hasieran, eromena zen, baina liburu bat genuen zalantzak argitzeko, eta orain argi dugu nora doan sortutako zabor guztia."

"Ez dakit beti ondo egiten ari naizen, produktu batzuen norakoa ez dago argi."

Landa-eremuetan birziklatzea

"Oartzunen, 'atez ate' moduko zaborra biltzeko sistemaren bidez birziklatzen dugu dena, asteko egun bakoitzean dagokion zaborra jaisten da."

Erantzukizun kolektiboa

"Antza, herritarroi botatzen digute errua, eta enpresek eta gobernuek ez dute nahi beste aldetzen."

”

6 Marka jasangarriak eta jasangarritasun-zigiluak

6. Marka jasangarriak

Kontsumitzaileek marka bat jasangarritzat hartzeko, markarekin lotura sendoa eta leialtasuna sortzen laguntzen duten hainbat faktore daude.



Zein faktorek egiten dute marka bat jasangarritzat hartzea?

Hauek dira marka bat jasangarri egiten duten faktore nagusiak: ingurumenarekin duen konpromisoa, material jasangarriak erabiltzea, ekoizpen etikoa, berrikuntza teknologikoa, bertako komunitateei laguntzea, gardentasuna eta kontsumitzaileak hezteak.

Ezaugarri horiek markaren inpaktu soziala eta ingurumenekoa hobetzeaz gain, konfiantza eta leialtasuna sortzen dute kontsumitzaileen artean..



Material jasangarriak erabiltzea

Material birziklatuak, biodegradagarriak edo jatorri organikodunak hautatzea funtsezkoa da jasangarri izan nahi duen marka batentzat.



Ekoizpen etikoa eta arduratsua

Marka jasangarriek bidezko lan-baldintzak, soldata itxurosoak eta hornidura-kateko gardentasuna bermatu behar dituzte.



Berrikuntza teknologikoa eta ekologikoa

Jasangarritasuna, halaber, produktu iraunkorrak eta efizienteak egiteko teknologia berdea eta berrikuntza hartzea dakartza.



Hurbiltasuna eta laguntza bertako komunitateei

Bertako ekoizleekin lan egiteak garraioaren logistika murrizten du eta hurbileko ekonomiari laguntzen dio.



Etika prozesuetan

Kontsumitzaileek aintzat hartzen dute markak zintzoak izatea prozesu, material eta jardunbideei dagokienez, konfiantza eta leialtasuna sortuta.



Kontsumitzaileak hezi eta sentikor bihurtzea

Markek jasangarritasunarekiko kontzientziakoa sustatu behar dute kontsumitzaileen artean, eta ohitura arduratsuak bultzatu.

“

“Marka jasangarri batek modu arduratsuan kudeatzen ditu erabiltzen dituen baliabide naturalak, bere karbono-aztarna murrizten du eta energia berriztagarriak erabiltzen ditu.”

“Langileak bidezko eran tratatzea ere bada jasangarritasuna.”

“Marka jasangarri batek gardentasuna behar du hornidura-katean.”

“Bertako produktuak, 0 Km-koak, erabili behar dituzte”

”

6. Marka jasangarriak: ezagunenak



JANTZI ETA MODA JASANGARRIA

ECOALF

Ecoalf: ezaguna da jantziak egiteko material birziklatuak erabiltzeagatik, batez ere, arrantza-sareak.



Ternua: Euskal Herriko marka, mendiko produktuak egiteko, esaterako arrantza-sareak erabiltzen dituena.

patagonia

Patagonia: ingurumen-konpromiso, ekoizpen etiko eta produktuen iraunkortasunagatik aintzat hartzen da.



Bichobichejo: kotoizko jantzi ekologikoak saltzen ditu, diseinu originala dutenak.



H&M eta Zara: linea ekologikoak dituzte, material birzikaltuekin egiten direnak, eta jantziak berrerabiltzea sustatzen dute.

Minimalism

Minimalism Brand: kotoi ekologikozko kamiseten marka, emaitza onak lortzen ari dena, eta erosketa-esperientzia nabarmena duena.



BERTAKO ELIKAGAIAK



Central Lechera Asturiana: ontzi birziklatuak erabiltzen ditu eta plastikoak ezabatu.

"Ontzi birziklatuak erabiltzen ditu eta, duela gutxi, plastikoa ezabatu du ontzi gehienetatik."



Auara: ur marka jasangarria, mozkinak gizarte-proiektuetan berrinbertitzen dituena.

"Auara: mozkinak berrinbertitzen ditu proiektu jasangarrietan."



Solán de Cabras: plastiko birziklatua eta ontzi jasangarriak erabiltzen ditu.

"Solán de Cabras-ek plastiko birziklatua edo kristalezko ontziak erabiltzen ditu."



KOSMETIKA JASANGARRIA

LUSH

Lush: kosmetiko naturalak eta jasangarriak, ingurumen-konpromiso handia duena.

"Lush kosmetiko naturalen beste marka jasangarri bat da, Europan ospetsu egin zena."

Freshly®

Freshly Cosmetics (parte-hartzaile 1ek aipatu du): Produktu naturalak eta arduratsuak, zainketa pertsonalerako.

"Freshly Cosmetics: produktu naturala zainketa pertsonalerako."

6. Marka jasangarriak: ezagunenak



Haize-energiak konpainia elektrikoak nabarmentzen ditu, energia garbiak sustatzen ditu eta ingurumen-inpaktua murrizten duten marka gisa identifikatzen ditu.



Iberdrola: erreferentzia Espainiako energia berriztagarrien sektorean, hainbat proiekturen eskutik, hala nola haize-parkeen eskutik.



Gamesa: erreferentzia-marka da haize-energian.



Tesla: mugikortasun jasangarrian aintzindariak diren ibilgailu elektrikoen markatzat jotzen da.




Fagor: teknologia jasangarriak dituzten etxetresna elektrikoak.

"Fagor markak urte asko darama jasangarri izaten."

Ikea: altzariak berrerabili eta birziklatzeko programak sustatzen ditu.



"Ikeak baditu erabilitako altzariei bigarren bizitza bat emateko programak."



Coca-Cola: ontzien kudeaketari buruzko jasangarritasun-programak nabarmentzen dira.



Amazon: bilgarriak murriztu eta ibilgailu elektrikoak erabiltzeko ekimenak sustatzen ditu.

"Amazonen bilgarri gutxiago erabiltzen ditu, baita furgoneta elektrikoak ere."

6. Jasangarritasun-zigilu ezagunenak

Euskadiko herritarren iritziz, ondo legoke Europar Batasuneko etiketatze jasangarria sortzeko ekimena; baliagarritzat joko lukete gardentasuna sustatzeko eta *greenwashing*-a ekiditeko.



Kontsumitzaleek **Fair Trade** bidezko merkataritzarekin lotzen dute, eta ekoizleen bidezko ordainketa, ekitatea eta bizi-baldintzak hobetzea azpimarratzen dituzte.

"Fair Trade merkataritza-sistemak ekitatea eta justizia soziala sustatzen ditu, eta ekoizleek tratu duina jasoko dutela bermatzen du."

"Nekazariei lehengaien benetako prezioa ordaintzen diete."

"Elikagaiekin lotzen dut gehiago, ekoizle txikiekin."



Kontsumitzaileek **GOTS** ehunen jasangarritasunarekin, produktu organikoen ziurtatzearekin eta bidezko lan-baldintzekin lortzen dute.

"Ziurtatzen du zuntz naturalak erabiltzen direla, sintetikoak ez direnak, eta ez dela prozesu kutsagarriak erabiltzen."

"Bereizgarria da zuntz organikoak edo birziklatuak erabiltzen dituzten enpresentzat."

"Bermatu egiten du jantzi bat modu jasangarrian egin dela eta lan-baldintzak onak direla."



Kontsumitzaileek **B Corp** gizarte- eta ingurumen-jasangarritasunarekin eta gardentasunarekin konprometitutak dauden enpresak aintzat hartzen dituen ziurtapenarekin identifikatzen dute.

"B Corp ziurtapenak gizarte- eta ingurumen-jasangarritasunarekin benetako konpromisoa duten enpresak aintzat hartzen ditu."

"Aurreratuenak dira jasangarritasunari eta birsortzeari dagokienez, sakelak bete besterik ez dute helburu."

7 Bertako ekimenak

7. Bertako ekimenak

Cáritas-ekin loturiko ekimen ezaguna da Kooperera. Arrazoizko prezioen truke, produktuak berrerabiltzearen eta birziklatzearen bidez jasangarritasuna eta gizarteratzea sustatzen ditu.



Kooperera: konpromisoa gizarteratze eta jasangarritasunarekin

Kontsumitzaile askok Kooperera Cáritas-ekin loturiko ekimentzat hartzen dute, eta gizarteratzeko haren lana nabarmentzen dute. Jasangarritasunarekin, jantzien berrerabilerarekin eta objektu baztertuen murrizketarekin duen konpromisoagatik ere aintzat hartzen da.

Produktu-aukera handia izatea ondo baloratzen da, baina jantziak ez diren hainbat ataletan (altzariak, jostailuak eta liburuak, kasu) eskaintza gehiago egoteko nahia adierazi da.

Adierazi da, halaber, dendak txikiak direla eta oraintsu prezioak igo egin dituztela.

Pre-loved objektuak: gutxi ezagunak

Gutxi ezagutzen dira *pre-loved* objektuak; pertsona batzuek honela deskribatzen dituzte:

"Objektu horiek jabe bat izan dute lehenago, hots, erabili egin dira. Ez dut ondo ezagutzen joera hori."

"Kalitate oneko objektu edo jantzi bat, gutxi erabilia, prezio onean; askotan, oso gutxi erabili izan da, behin, bakarrik"

“

"Oker ez banago, Cáritas-en bigarren eskuko dendak dira. Nire ustez, gizarteratzeko ezinbesteko lana egiten dute."

"Gogoko dut, gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonekin lan egiten dutelako, eta salmenten bidez, prestakuntza eta lana ematen dizkiete."

"Askotariko produktuak dituzte, eta beti aurkitzen duzu interesatzen zaizun zerbait."

"Prezioak pixka bat aldatuko nituzke, azkenaldian gehiegi igo dituztelako."

”

7. Bertako ekimenak

Beste ekimen batzuk, hala nola Emaús edo Remar dendak erabiltzen ez diren objektuak emateko tokitzat hartzen dira, gizarteratzea eta jasangarritasuna sustatzeko.



Emaús eta Remar: erabiltzen ez ditugun gauzak emateko tokia

Herritar batzuek Emaús dendak erabiltzen ez diren jantziak, liburuak, altzariak eta etxetresna elektrikoak emateko tokitzat jotzen dituzte. Hobesten dute gizarteratzeko lanagatik.

Remar GKEari ere horrelako objektuak ematen zaizkio. Adierazi da horren dendak edo merkatuak Lurralde Historikoan zehar banatuta daudela.

Aipagarria da ekimen horiek aipatzen direla, batez ere, produktuak emateko aukera ematen dutelako, eta ez objektu erabiliak prezio onean erosteko aukera ematen dutelako.

Open your ganbara: merkatutxoa, Zorrotzaurre sortzailearen ekimenez

Espacio Open kultur zentroaren ekimena aukera ontzat jo da bai erabiltzen ez diren objektuak saltzeko, bai jarduera bati ekiten dioten ekintzaileak agerian jartzeko.

Gizarte-ekintza eta jasangarritasuna: ondo uztartzen diren bi osagai.

Herritarrek iritzi ona dute bi jarduera horiek elkartu izanari buruz, eta ondo deritzote eragin positibo bikoitza -soziala eta jasangarria- sortzeko aukerari. Jasangarritasunak beste sektore batzuetan (zaharberritzean edo mugikortasunean) ere agertzen den giza osagaiari heldu dio berriro.

“

“Nahiago dut erabiltzen ez ditudan gauzak Emaús edo Remar dendetara eramatea, Vinted edo Wallapop bidez saltzea baino. Horrela gizarteari ekarpen bat egiten diodala sentitzen dut.”

“Oso gogoko nuen Open your ganbara merkatutxoaren ekimena, Zorrotzaurren garai bateko Artiach lantegian igandero antolatzen zena. Gogoratzen dudanez, nahi zuenak hamar edo hamabost euro ordaindu eta salgaiak eramaten zituen: jantziak, liburuak, jostailuak... Nire ustez, horrelako ekimenak ohikoagoak izan beharko litzateke.”

”

8 Garraioa eta mugikortasuna

8. Garraioa eta mugikortasuna

Erostekeko ibilgailu partikularrez egindako joan-etorriak asteko erosketak handiak egiteko edo lanerako bidea aprobetxatzen duten erosketak egiteko egiten dira, eta horrek joan-etorrien maiztasuna murrizten du eta haiek optimizatu egiten ditu.



Auto partikularra asteko erosketak handiak egiteko erabiltzen da.

Garraiobide hori zama handiak errazteko eta bisita bakarrean asteko erosketak egiteko erabiltzen da gehienbat.

Egiaztatu da lanerako joan-etorriak edo umeak eskolatik biltzekoak aprobetxatzen direla etxerako bidean dauden supermerkatuetan erosketak egiteko.

Kontsumitzaileek, horrela, erregaiaren kontsumoa eta denbora optimizatzen dituzte.

Emisio Gutxiko Eremuek erdialderako joan-etorrien maiztasuna murrizten dute, zailtasunagatik edo kostu gehigarriagatik,



Hurbileko erosketak oinez egiten dira

Auzoko supermerkatuetako, herriko dendetako edo erdialdeko dendetako erosketak oinez egiten dira.

Askotan oinez joaten dira erosketak txikiak edo egunekoak egiteko, ez delako pisu handirik eramaten.

Hiriguneetatik hurbil bizi ez direnentzat auto partikularrean Emisio Gutxiko Eremuetan sartzea erronka handia da, eta garraio publikoa nahiago izaten dute.



Bizikleta, erosketak eta ibilbide konbinatuarentzat

Eguraldia aukera ematen badu, kontsumitzaile batzuek bizikleta erabiltzen dute, bai hurbileko erosketak egiteko, bai garraio publikoarekin konbinatutako ibilbideak egiteko.

Pertsona batzuek bizikleta egokituak dituzte seme-alabak ikastetxera eramateko edo erosketak handiagoak eraman ahal izateko.

Bizikletak erabiltzen dituztenen iritziz, jasangarriagoak dira, ariketa fisikoa egitea onuragarria da eta gertuko tokietara azkar mugitzen da.

“

"Asteko erosketak lantokitik etxerako bidean dagoen supermerkatu batean egiten dut."

"Ez dugu autorik, eta hirian oinez mugitzen gara gehienbat."

"Zama-bizikleta bat dut bi seme-alabak nirekin eramateko, eta egunero erabiltzen dut haien joan-etorrietarako. Lantokia beste udalerrira batean dago, eta horretara autobusez joaten naiz, eta autobus-geltokira, bizikletaz."

”

8. Garraioa eta mugikortasuna

Oraintsu Emisio Gutxiko Eremuak ezarri izanak tirabirak sortu ditu. Hori zalantzan jartzen dela hauteman da, eta garraio publikoaren sistemaren gabeziak agerian jarri dira, horren erabilera kontuan hartzean.



Emisio Gutxiko Eremuak

- Euskadiko herritarrek badakite Emisio Gutxiko Eremuek onurak dakartzatela, eta horietako batzuk aipatu dituzte:
- Hirialdeetan CO₂ isuriak murrizten laguntzen dute; hortaz, airearen kalitatea eta osasun publikoa hobetzen laguntzen dute.
 - Garraio publikoa eta bizikleta erabiltzea eta oinezko joan-etorriak sustatzen dituzte, eta ibilgailuen zirkulazioa murrizten laguntzen dute.
 - Hiriguneetako zarata eta zirkulazioa murrizten dituzte, eta atseginago egiten joan-etorriak autorik erabiltzen ez dituztenentzat.
 - Jardunbide jasangarriak sustatzen dituzte, esaterako, oinez eta garraio publikoan iristeko moduko dendak lehenestea.



Emisio Gutxiko Eremuen kontra

- Halere, EGEek buruhaustea dakarkie herritar askori, arrazoi hauengatik:
- Ibilgailu berri batean inbertitu behar da hirigunera sartzen jarraitu ahal izateko.
 - Garraio publikoa erabiltzea zaila da, maiztasun urri eta ibilbide gutxi.
 - EGEen aparkatzeko aparkalekua behar da, eta hori garestia da.
 - Dendetan eragina izan dezake, bezero gutxiago joango delako, autoz joaten zirelako.
 - Hitz batez, EGEak "eraginik ez duen adabakia", direla uste dute, kutsadura hiriko beste eremu batzuetara eramaten baitute.

“

"Egiten dutena da kutsadura hiriko beste eremu batzuetara eramatea."

"Eragozpena da eremu horretara nahitatez joan behar diren hiritarrak ibilgailua aldatzera behartzen dituela."

"Plentzian bizi naiz, eta metroa 20 minutuz behin dator. Autoa hartu behar duzu. Ni ezin naiz 20 minutuz metroaren zain egon Bilbora joateko."

”

8. Garraioa eta mugikortasuna

Euskadiko herritarrak ez dira ibilgailu elektrikoaz fidatzen, azpiegiturarik ez duelako eta baterien fabrikazioaz eta birziklapenaz zalantzak dituztelako. Oraingoz, emisio gutxiko diesel modeloak hautatzen dituzte.



Ibilgailu elektrikoarekiko mesfidantza

Euskadiko herritarrak alderdi hauengatik ez dira fidatzen:

- Ez dira fabrikazioaren jasagarritasunaz fidatzen, ezta modu eraginkorrean birzikaltzeko aukeraz ere.
- Zalantza egiten dute bateriak fabrikatzeko mineralen jatorriaz eta horiek erauzten dituzten langileen lan-baldintzez.
- Adierazi dute bateriak modu eraginkorrean kargatzeko azpiegitura gutxi daudela.
- Uste dute ibilgailu elektrikoak erosteko laguntza bukatu izanak zaildu egiten duela horiek erostea, oso garestiak direlako.

Energia fotovoltaikoa eta energia-komunitateak sortzearekiko baikortasuna

Azterketan parte hartu duten pertsona batzuek eguzki-panelak jarri dituzte etxebizitzan oraintsu, eta iritzi ona dute esperientziatz.

Beste parte-hartzaile batzuk baikor daude bere Lurralde Historikoan energia-komunitateak sortzeari begira.

Adibide bat adierazi da: Bilboko San Mames Estadioan panel fotovoltaikoak instalatu ostean sortu den energia-komunitatea.

“

“Oraingoz, ez nago ibilgailu elektrikoaren alde, ez dagoelako argi baterien birziklapena, eta ez dagoelako kargatzeko toki nahikoa.”

“Etxean eguzki-panelak ditut, eta oso pozik nago haiekin, baina, oraingoz, ez dut auto elektrikorik erosiko, ez dut argi ikusten.”

“Nire ustez, auto elektrikoa kontsumoaren torlojuari beste koska bat estuago bat da; orain, autoa aldatzea nahi dute.”

”

9 Etorkizun-sena eta oztopoak kontsumo jasangarriari

9. Etorkizun-sena eta oztopoak kontsumo jasangarriari

Kontsumo jasangarriagoa eragozten duten **oztopoak zeharkakoak** dira eta gizartea zeharkatu egiten dute, beste konstruktibatzuek -**kultura, politika** eta **maila sozioekonomikoak**- egiten duten moduan.



1. Erabaki garrantzitsuetan eragiteko gaitasun txikia dagoelako sentazioa

Oztopo nagusia da kontsumitzaileek uste dutela jarduteko aukera txikia dutela eta enpresa fabrikatzaileak eta Administrazio Publikoak arduratzen direla kontsumoan jasangarritasuna hobetzeko konponbideak bilatzeaz.

Kontsumitzaileek adierazi dute ez dutelako modu eraginkorrik neurri berriak erreklamatzeko, norberak erosteko duen erabakiaz edo erabiltzen dituen baliabideak optimizatzeaz gain. Halaber, erosteko erabakiei, askotan, aukera jasangarriak ez egoteak edo aukera horien prezioa askoz altuagoa izateak eragiten diete.



2. Egungo bizimodua —azkarra, ekoizpena ardatz duena— da kontsumo jasangarria hobetzeko oztopo nagusienetako bat.

Azkar bizitzeak eragin zuzena du elikagaien kontsumo-ohituretan, eta horrek eragiten du kontsumitzen ditugun produktuei ez erreparatzea, horien eraginaz gogoetarik ez egitea.

Baina, era berean, "denbora aurrezteko" produktuak erostea dakar, hala nola plater prestatutak, gutxiago kozinatzeko, eta horiek plastikozko ontzi gehiago erabiltzen dituzte.

“

Jarduteko gaitasun txikia

“Norberak zerbait egin dezake, baina horren jarduera ezin da alderatu fabrika edo gobernu batek egiten dutenarekin”

Bizimodu azkarra

“Egunerokotasunean bizi izaten dut, janari prestatua jaten dut askotan, lanean emankorrago izateko eta diru gehiago irabazteko aukera ematen didalako”

“Ez diot erreparatzen produktuak jasangarriak diren ala ez, presaka nabil beti”

“Erosketa egin eta jartzean, 10 minututan plastikoz eta ontziez betetzen duzu poltsa bat”

”

9. Etorkizun-sena eta oztopoak kontsumo jasangarriaren aurrean

Oztopo kulturala erreakzio modu gisa sortzen da, kontsumitzaileek beste erakunde eta enpresen aldetik sentitzen duten errudutasunaren aurrean duten **gogaitasuna bideratzeko.**



Aldaketarekiko erresistentziaren oztopo kulturala hainbat faktorek eragiten dute:

Erantzukizun gehiegi

Kontsumitzaileek erresistentzia agertzen dute Administrazioek eta enpresek gizabanakoen esku uzten duten gehiegizko erantzukizunari. Batzuek uste dute "doktrinatu egiten dituztela", eta enpresei eskatzen ez zaien eredugarritasuan eskatzen zaiela.

Marketin eko-jasangarria gehiegikeriaz erabiltzea

Erresistentzia hori sortu da, halaber, produktuen prezioen igoera justifikatzeko etiketa jasangarriak gehiegikeriaz erabiltzen direlako. Era berean, kontsumitzaileek uste dute produktu jasangarri batzuk, garestiagoak direnez, dirudunentzat direla, eta haiek ez dira gizarte-maila horretako kide direla sentitzen.

Horrek guztiak sortu du kontsumo jasangarriko ohituren kontrako jarrera, gogoeta handirik egin gabe, identitatea berreste hutsagatik.

“

“Beste etxe bat dut Errioxan, eta, han, piperrak 3 €-tan saltzen dira, eta, Bilbon, berriz, Eusko Labeldunak, 13 €-tan. Askotan, horretaz aprobetxatzen dira, eta batzuek ordaindu ahal izango dute, baina beste batzuek, ez.”

“Doktrinatu egiten gaituztela sentitzen dut, gero eta gehiago: “birziklatu egin behar da, ontzi gutxiago kontsumitu behar da, hau eta bestea egin behar dira...” Kontsumitzaileengan jartzen dute arreta, eta enpresa handiak dira gehien kutsatzen dutenak, ehungintzatik hasita... Eta guztiok, tentel bagina bezala. Nork bere egoera du, eta batzuek ezin ditugu gauza jasangarriak erosi.”

”

9. Etorkizun-sena eta oztopoak kontsumo jasangarriari

Etorkizunari begira, 4 gai garrantzitsu hartzen dira kontuan kontsumo jasangarria lortzeko:



Elikagaien plastikozko ontziak murriztea eta hurbileko produktuen prezioa murriztea

Herritarrek ez dute aurreikusten hurbileko produktuen prezioen gorakadarik, baldin eta beste produktu batzuen prezioen pareko prezio-murriketa gertatzen ez baldin bada.

Hala ere, adierazi dute plastikozko ontzien kopurua murriztu nahi dutela, eta jarrera irekia dutela aldaketaren aurrean. Kontsumo-ohituran izan berri diren aldaketen ildoari jarraitzen zaio, hala nola plastikozko poltsak murrizteari.



Kexak agertzen badituzte ere, Emisio Gutxiko Eremuak funtsezkotzat jotzen dituzte hirien etorkizunean.

Garraio publikoaren eskaera gorakorrari erantzuteko, beharrezkotzat jotzen dute garraio publikoaren lineak eta maiztasuna ugaritzea.

Gehienek ibilgailu elektrikoa baztertzen badute ere, horien jarrera itzarotea da, azkenik teknologia hori sendotzen den eta behar bezala erabiltzeko azpiegitura eta ingurumen-bermeak ematen diren.



Objektu berregokituak gehiago berrerabili, konpondu eta erostea.

Aurreikusi dute konpondu, zaharberritu eta berrerabiltzeko joera sendotu egiten ari dela, eta zerbitzu espezializatuek eta elkarlaneko ekonomiak gora egingo dutela.

Aurreikuspen hori egin da azkenaldiko prezioen gorakada kontuan hartuta, eta gerta daitekeelako lehengaien garestitzeak merkeago egitea proportzionalki gauzak berrerabiltzea eta bigarren eskukoak erostea.



Etorkizun teknologikoagoa eta partizipatiboagoa

Aurreikusi dute elkarlaneko kontsumoko plataformek ugaritzen jarraituko dutela, egun gehien erabiltzen dutenak sendotu egingo direla (jantziak, altzariak, teknologia eta garraioa,) eta kategoria berrietan dibertsifikatuko direla (elikadura, mantentze-zerbitzuak eta prestakuntza espezifikoak).

Elkarlaneko kontsumoko plataformen zerbitzura dagoen teknologia aliatutzat jotzen da klima-aldaketaren aurka borrokatzeko.

